


Auto elektrikoaren etsaiak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Aberdeen (Eskozia), 1837. Robert Davidson kimikariak lehen auto elektrikotzat jotzen dena asmatu zuen, lehenago egin ziren saiakerak gauzatu: Ányos Jedlik hungariarrak, esaterako, motor elektriko bat osatu eta eskala txikiko auto bati jarri zion 1828an.

1841ean Davidsonen prototipoa hobetu zuen: 6 km/h abiadura eta 2,4 km-ko autonomia zuen autoa aurkeztu zuen. Ezaugarri horiek oso mugatuak ziren autoaren erabilera zabaltzeko. Hala ere, Glasgow eta Edinburgheko trenbideko langileek mehatxutza jo zuten berrikuntza hura eta ibilgailua suntsitu zuten.

1859an Gaston Planté fisikari frantziarrak berriz kargatzeko bateria asmatu zuen eta beste frantziar batek, Camille Alphonse Faurek, asko handitu zuen bateria horien ahalmena 1881ean. Hori guztiari esker, 1888an Andreas Flockenek diseinaturako autoaren ekoizpen industrialia abiatu zen.

Mendea amaitu baino lehen, taxi elektriko konpainiak sortu ziren Londres, Paris, Berlin eta New Yorken. Beste abantaila askoren artean, auto elektrikoek zaldi-orgek hartzen zuten tokiaren erdia soilik behar zuten, eta orga gidariek taxi berrien aurkako kanpaina zitala abiatu zuten Londresen, London Electric Cab Company desagerrarazteraino.

Partikularren merkatuan auto elektrikoek arerio sotilago batekin egin zu-



PETROLIO KONPAINIEN INTERESAK IZAN DIRA AUTO ELEKTRIKOEN ETSAIK GOGORRENAK. BAINA ARERIO SOTILAGOAK ERE IZAN DITUZTE, HASIERAN "EMAKUMEENTZAKO" AUTO GISA MERKATURATU BAITZIREN.

ten topo: sexismoa. Garbiagoak, gidatzen errazagoak, isilagoak, distantzia laburretarako egokiagoak... zirenez, publikitateak nagusiki emakumeak izan zituen jomuga. Baina erosle gehienak gizonezkoak ziren eta gutxik egin zuten "neskentzako" autoaren aldeko hautua.

Auto elektrikoaren etsairik handiena petrolio izan da. Petrolio-erreserba handiak aurkituta, erregaiaren prezioak nabarmen egin zuen behera. 1908an Henry Fordek Ford-T modeloa merkaturatu zuen auto elektrikoaren erdi prezioan. Eta auto elektrikoarenak egin zuen.

Juan Ignacio Pérez Iglesias EHuko Kultura Zientifikoko Katedraren arduraduna-

ren aburuz "agian denboraz kanpo sortu zirelako" egin zuten porrot auto elektrikoek. Baina petrolio konpainien aurka ba al da garai onik? Askorentzat haxe da auto horiek bultzatzeko garai egokia. Jonathan Lesser energian adituak dioenez, ordea, "ez da igorpenak murrizteko irtenbidea, elektrizitate ekoizpena handitzea eskatzen duelako". Auto elektrikoak adabakiak baino ez direla eta irtenbidea mugikortasun eredu goitik behera aldatzea dela esan nahi zuen horrekin? Pentsatzekoa da ezetz. Manhattan Institute-ko aholkularia baita Lesser. Eta ezetz asmatu nor dagoen erakunde horren atzean: Exxon petrolio enpresa ahalguztiduna. ●

Boycotty boikota egin ziotenekoa

1873an Erneko kondeak Charles Boycott ingelesa Irlandako Achill uharteko lurren administratzaile izendatu zuen. Berehala haren menpeko nekazariak Boycotten tratatu jasanezina salatu zuten eta errenta ordaintzeari utzi zioten. 1880rako inork ez zuen harentzako lanik egin nahi, ezta produkturik erosi edo saldu nahi ere. Boycottek Ulsterreko langile protestan-

teak lortu zituen hasieran. Baina, Irlandar Nekazarien Ligak Boycott baztertzeko aukera legala eman zien nekazariei zein bestelako zerbitzuei eta ferrokarrilak berak uko egin zion ingelesaren produktuak garraiatzeari. Azkenean, Boycott Irlandatik egozteko lortu zuten.

The Times egunkaria 1880an bertan hasi zen "to boycott" aditza erabiltzen. ●



LESLIE WARD